

INDARKERIA SEXISTAREN AURREAN, ERRESISTENTZIA FEMINISTA!!!

Egunak joan egunak etorri, azkenean iritsi zaigu berriro ere azaroaren 25a: Dominikar Errepublikan diktaduraren aurka borrokatu ziren Mirabal ahizpen omenez emakumeen aurkako indarkeria salatu eta honi aurre egiteko nazioarte mailan ezarri zen eguna, hain zuzen ere. Eta urtero bezala, tamalez, saminez eta amorruz, gurean ere indarkeria hau birsortu eta iraurarazten duten instituzioak interpelatu eta salatu nahi ditugu. Hala, guk geuk botere sistema honetan jokatzeko dugun paperaz ohartarazi eta neurriak hartzeko exijitzen dugu; eta honez gain, egoeraren larritasunaz jakitun, herritar kontzientziatu eta feminista guztiei kalera irten eta egoera gaitzesteko deia zabaltzen diegu.

Aurten, gainera, Hego Euskal Herrian egoera sozial eta ekonomikoaren bilakaerak are tesitura larriagoan ipini gaitu. Izan ere, eskubide laboral zein sozialen murrizketek pentsaezinak ziren atzerapausoak suposatu baitituzte indarkeria sexista gainditzeko urte luzez urraturiko bideetan. Eraso neoliberal patriarkal murriztaile hauek genero rola indartu eta dominazioa zein zapalkuntza areagotu baizik ez dute egiten gizon eta emakumeon artean, bizimodu guztiz prekarizatu eta zaugarri bat eskainiz. Hala nola, murrizketak alde guztietatik: zerbitzu publikoen deusezteak (osasun "publikorako" sarbidea mugatuz, esaterako), pentsioen erreforma, laguntza sozialen murrizketak... Eta nola ez, berriro ere, egoerarik larrienean gaur arte zaugarrienak izan garen kolektiboak gaude: emakume migranteak, etxeko langileak, baserritarrak, sexu langileak, lesbianak, presoak, transak, pentsionistak, aniztasun funtzionala dugunak, alargunak eta abar.

Nork beteko ditu botere politikotik egiten ari diren zulo hauek? Nork ordainduko du sistemaren krisia? Nork pairatuko indarkeria eta pobrezia?

Prekarietate egoera honek, hau bere baitan ere bortizkeria delarik, indarkeria areagotu besterik ez du egiten. Azken finean, hainbeste estututako jendarteak sistema kapitalista neoliberalak sustengatzeko beharrezko baitu mailaketa hierarkikoa, eta hierarkia hori mantentzeko era berean ezinbestekoa baita indarkeriaren erabilera. Hala, indarkeria sexista kasuek ere gora egin dute. Eta zein da guzti honen aurrean gobernuen jarrera?

Egoera irakurri ahal izateko azterketa txiki bat egin behar dugu, izan ere, Euskal Herriko banaketa administratibo ezberdinen ondorioz, Berdintasunerako politiken eta legeen aferan tokian toki arretarako zerbitzuak, laguntzak eta orokorrean instituzio publiko politikoaren inplikazioa ere ezberdinak baitira. Honela, esaterako, Nafarroan, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua dugu, familiari loturiko gaiak eta egin beharrak atxiki dizkiotelarik berriki Institutuari feministon harridura eta ezadostasunerako, atzerapauso bat suposatuz bereizirik behar luketen bi gai elkartu dituztelako. Lapurdin, Behe Nafarroan eta Zuberoan,

2010.urtetik bikote hetoresexualen baitako bortizkeria zigortzen duen Estatu mailako lege bat dago, praktikan oztopoz betea dena frogatzea oso zaila delako, baliabide faltagatik edo besterik gabe eskaerak errefusatuak direlako. Honez gain, abortua %100 debalde izatea aztertzen ari dira, baita gay eta lesbianen arteko ezkontza baimendu eta adopzio politikan aldaketak eragiten ere. Bestalde, badira hilabete batzuk lanean ematen diren sexu jazarpenak zigortzen zituen legea indargabetu eta huts juridikoan utzi zutena Pariseko gobernuakideek, eta Madrildik, berriz, murrizketak ditugu egunerokoan eta mehatxuka ari dira abortuaren legea oraindik gehiago baldintzatuko dutela esanez.

Egoera honen aurrean, eta ulerturik indarkeria sexista egiturazkoa dela, honen dimentsio guztiak kontuan hartuko dituen neurriak eta borondate politikoa exijitzen ditugu. Ez diezagutela gobernuetatik azaleko erreformarik eskaini, ez eta lege hutsalik ere, eta are gutxiago emakumeok oraindik menpekoago edo delinkuente bilakatuko gaituen erreforma planik ere, abortuarenaren gisara. Ez gara lesbianen eta gayen arteko ezkontzak legeztatzearekin konformatuko, ezta berdintasun Plan aurpegi zuritzaile batekin ere. Feministok aldaketa errealak nahi ditugu, egiturazko planteamendu berritzaileak behar ditugu, eta hauen gainean guk eta hemen erabaki nahi dugu.

Horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu jendarteko eragile zein norbanakoen artean eztabaida soziala egitea; erantzukizuna guztiona baita, eta gatazka honi amaiera emateko pausuak bultzatzea guztioi baitagozkigu, gu ere indarkeria eta botere harremanen egituraren parte garen heinean.

Azkenik, bereziki, emakumeei dei egin nahi diegu, ez ditzagun erasoak onartu. Salatu eta kalera irtetera, erantzun kolektiboak abian jartzera, autodefentsa feministaren sarea zabaldu eta subjektu aktibo bilakatzera jo behar dugu. Eraso sexistak ez dira kasu isolatuak, ez eta kontu pertsonalak ere, beraz adorez defenda ditzagun gure buruak eta berretsi gaitzen. Instituzioen politika paternalista eta biktimizatzaileek ez bagaituzte asetzen ez eta jabekuntzan mesederik egiten ere, elkartu gaitzen, talde eta ekimen feministak eratuaz nonahi. Geroz eta feminista gehiago gara, bakoitzak gure esparrutik baina elkarrekin saretuaz, elkartasunez, justizia sozialaren bidean indarkeriaren aurrean ematen den inpunitatearekin amaitzea lortuko dugu.

ERASORIK EZ ERANTZUNIK GABE! FEMINISTOK GURE ORAINAREN ETA GEROAREN
JABE!!!

Euskal Herrian, 2012ko azaroaren 15ean

FRENTE A LA VIOLENCIA SEXISTA RESISTENCIA FEMINISTA!!!

Los días van y vienen y al final ha llegado de nuevo el 25 de noviembre: un día en homenaje a las hermanas Mirabal que lucharon contra la dictadura en la República Dominicana, en el que se celebra el día internacional para denunciar y hacer frente a la violencia contra las mujeres. Y como todos los años, por desgracia, con amargura y rabia, nos vemos en la necesidad de hacer un llamamiento para interpelar y denunciar a las instituciones que reproducen y perpetúan la violencia sexista. También para ser conscientes del papel que nosotras jugamos en este sistema de poder y tomar medidas. Un llamamiento para concienciar a la ciudadanía y para que las feministas salgan a la calle y rechacen esta situación.

Este año, además, la evolución de la situación social y económica en Hego Euskal Herria nos ha colocado en una tesitura más grave. Los recortes en los derechos laborales y sociales han supuesto retrocesos que eran impensables en el camino que durante años se ha hecho para acabar con la violencia sexista. Este ataque neoliberal patriarcal restrictivo no hace sino reforzar los roles de género entre hombres y mujeres e intensificar la dominación y la opresión. Nos ofrecen un modo de vida totalmente precarizado y sangrante: con anulación de servicios públicos (por ejemplo restringiendo el acceso a los servicios públicos), reforma de pensiones, recorte en las ayudas sociales... y no podemos olvidarnos de las situaciones alarmantes que estamos viviendo los colectivos más vulnerables: mujeres migrantes, trabajadoras del hogar, baserritarras, trabajadoras del sexo, lesbianas, presas, trans, pensionistas, con diversidades funcionales, viudas,...

¿Quién cubrirá los agujeros que están haciendo desde el poder político? ¿Quién pagará la crisis del sistema? ¿Quién sufrirá violencia y pobreza?

Esta situación de precariedad es violencia en si misma, lo que no hace más que intensificar la violencia sexista. Al fin y al cabo, para mantener el sistema capitalista neoliberal es necesario establecer una jerarquía y para mantener esa jerarquía es necesario usar la violencia. Así pues los casos de violencia sexista han aumentado. ¿Y cual es la actitud del gobierno ante todo esto?

Para poder entender la situación, tenemos que hacer un pequeño análisis. Como consecuencia de las diferentes divisiones administrativas de Euskal Herria, los servicios de atención, las ayudas y en general la implicación de las instituciones públicas políticas entorno a las políticas de igualdad y las leyes son diferentes en cada lugar. Por ejemplo en Nafarroa, tenemos el Instituto Navarro para la Familia y la Igualdad, donde mezclan los temas relacionados con la familia y sus obligaciones, para estupor y disconformidad de las feministas, ya que han unido dos temas, que deberían estar totalmente separados. En Lapurdi, Behe Nafarroa y Zuberoa, desde 2010 hay una ley a nivel estatal que castiga la violencia dentro de las parejas heterosexuales, que en la práctica está llena de trabas, ya que es muy difícil probarlo, por falta de medios o sin más porque las peticiones son denegadas. A parte de eso,

están analizando que el 100% de los abortos sean gratuitos, autorizar las bodas entre gays y lesbianas e impulsar cambios en la política de adopciones. Por otro lado, hace unos meses que el gobierno de Paris ha derogado la ley que castigaba el acoso sexual en el trabajo y desde Madrid, recortes y más recortes y están amenazando con condicionar aún más la ley del aborto.

Ante esta situación, y teniendo en cuenta que la violencia sexista es estructural, exigimos medidas y voluntad política que tengan en cuenta toda sus dimensiones. Que desde los gobiernos no nos ofrezcan reformas ni leyes estériles, y muchos menos planes que sometan y conviertan a las mujeres en delincuentes, como es el caso del aborto. No nos vamos a conformar con que legalicen las bodas entre lesbianas y gays, y tampoco con un plan de igualdad que solo sirva para lavarles la cara. Las feministas queremos cambios reales, necesitamos planteamientos estructuras innovadores, donde tengamos capacidad de decisión.

Para esto consideramos imprescindible un debate social entre todos los agentes y personas de la sociedad; ya que es responsabilidad de todas y todos y nos corresponde impulsar los pasos necesarios para acabar con este conflicto, porque nosotras también somos parte de la estructura de la violencia y las relaciones de poder.

Por último, queremos hacer un llamamiento especialmente a las mujeres, para que no admitan ningún tipo de agresión. Tenemos que denunciarlas y salir a la calle, poner en marcha una respuesta colectiva, desplegando una red de autodefensa feminista y transformándonos en sujetos activos. Las agresiones sexistas no son casos aislados, ni cuestiones personales, por lo tanto defendámonos con todas nuestras energías y autoafirmémonos. Ya que la política institucional paternalista y victimizadora no nos satisface, juntémonos, organizando grupos e iniciativas feministas, en favor del empoderamiento. Cada vez somos más feministas, cada una desde nuestro ámbito pero trabajando juntas, conseguiremos acabar con la impunidad que se da ante la violencia, en el camino hacia una justicia social.

¡NINGUNA AGRESIÓN SIN RESPUESTA!

¡LAS FEMINISTAS SOMOS DUEÑAS DE NUESTRO PRESENTE Y NUESTRO FUTURO!

En Euskal Herrian, el 15 de noviembre del 2012